

TABAKALERA



ESPAZIO LAGAPENA DEIALDIA

**KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA**
—

**CENTRO
INTERNACIONAL
DE CULTURA
CONTEMPORÁNEA**
—

**INTERNATIONAL
CENTER OF
CONTEMPORARY
CULTURE**
—

tabakalera.eu
—



1. AURKEZPENA

Tabakalerak, arte-sorkuntzarako gunea den aldetik, lan espazioen-programa bat jarri du martxan, artista, sortzaile eta kultur eragileei babesa emateko. Programa honen helburu nagusia arte garaikidean lanean ari diren artista eta kultur eragileei arte-prozesuetan laguntzea da, bai kontzeptuarekin bai ekoizpenarekin.

Programa honek, Tabakalerak dituen beste batzuek bezala, espazio bat sortu nahi du eragileak eta haien proiektuak elkarren ondoan garatu daitezzen, egoiliarren eta eragile gonbidatuen artean lankidetzak sortzeko giroa eta aukera bultzatzeko helburuz.

2. XEDEA

Deialdi honen xedea da, arte garaikidearen esparruan lanean ari eta EAEn bizi diren artista eta kultur eragileei, lanerako espazioak eta baldintzak eskaintzea arte-proiektuak garatu ahal izateko.

Deialdira aurkeztutako proiektuek praktika artistikoak garatzeko modu berriak ikertzeko asmoa azaldu beharko dute, eta diziplina ezberdinekin harremanak sortzeko aukerak topatu.

Deialdiak izaera desberdinetako proiektuak ditu helburu, honen arte diziplina edo proiektua aurkitzen den fasea kontutan hartu gabe. Proiektuaren garapen faseari dagokionean, deialdi honetan zehazten diren bi modalitateetan azaltzen denari lotu beharko zaio.

Deialdi ireki eta iraunkorra da, une bakoitzean eskainiko den laguntza kopurua Tabakalerak dauzkan konpromisoek eta programak baldintzatuko du.

Hautatze batzordeak aurkeztutako proposamenen artetik deialdiaren baldintzei egoki erantzuten diotenak aukeratuko ditu. Espazio kopurua dela-eta kanpoan geratzen diren proiektuak hamabi hilabeteko epean berrikusteko aukera dago behin betiko erabakia hartzeko.

Deialdira aurkeztu eta ezezkoa jaso duen proposamena ezin izango da berriro aurkeztu.



3. MODALITATEAK

Honako deialdi honek bi modalitate barne hartzen ditu, behar desberdinei erantzun emanez.

3.1. A modalitatea

Modalitate hau, kontzeptualizazio fasean dauden proiektu artistikoei, ekoizpen fasea hastear daudenei edo jada garapenean dauden proiektuei zuzendua dago.

3.2. B modalitatea

Modalitate hau iada martxan dauden proiektuei zuzendarik dago, formalizazio fasean edo ekoizpen fasean dauden proiektuei eta behar tekniko esta espazial konkretuak behar dituzten proiektuei.

4. HAUTAGAIK

Deialdian parte hartu ahal izango dute EAEn egoiliarak diren artista eta kultur eragileak, partzialki edo soilik arte garaikidearen sektorean proiektuak garatu nahi dituzten pertsona fisiko edo juridiko nazional edo atzerritarrek, dela eremu horretan jarduten dutelako, dela sektore horretan ibilbide profesionalari ekin nahi diotelako.

Halaber, hainbat pertsona fisiko edo juridiko deialdiari, batera, aurkeztu ahal izango dute, haien artean erlazio formalizaziorik eskatu gabe.

5. ZUZKIDURA

Egonaldi Tabakalerak Donostian dituen instalazioetan egingo da. Programak prestazio hauek eskaintzen ditu bi modalitateetan hautatuak diren proiektuentzat:

1. Lanerako espazioa, oinarriko altzariekin hornitua, argindar toma bat duena eta argizatua. Lanerako guneak neurri ezberdineko espazio arkitektonikoak dira, proiektu ezberdinen beharrei erantzuteko aukera ematen dutenak.
2. Tabakaleraren sorkuntza-liburutegi espezializatuko funtsetarako sarbidea.



3. Baliabide teknikoak eta Tabakalerako lan-taldearen laguntza, behar eta aukeren arabera.

Honi lotuta, Tabakalerak bideoa editatzeko hiru estudio dauzka, argazki estudio bat, soinua editatzeko kabina bat, kultura digitalari zuzendutako tailer laborategia, platóa eta arte eszenikoak garatzeko espazioa. Espazioa esleitu zaion erabiltzaileak Tabakalerak erabilgarri dauzkan ikus-entzunezko baliabideak eta bestelako material teknikoa eskura izango du. Era berean, zentroan lan egiten duten teknikarien laguntza izango du, proiektuaren beharren arabera eta Tabakaleraren lan-taldeak daukan aukeraren arabera.

A modalitateari dagokionean, Tabakalerak proiektuaren nolakotasuna eta bere aukeren arabera:

1. Laguntza kontzeptuala proiektua garatzeko, eta laguntza inguruko eragile eta proiektuak ezagutzeko, egoiliarak hala eskatuz gero.
2. Proiektua aukeratutako komisioak, kasu bakoitzean ezberdinak izango diren laguntza ekonomiko gehigarriak esleitu ahal izango ditu. Komisioaren erabakia izango da laguntza horien baldintzak zehaztea. Laguntza horiek ekoizpen-prozesura bideratuko dira beti. Gastu txikiak estaltzeko erabiliko dira eta sekula ez proiektuaren formalizazio gastuen osotasuna ordaintzeko.

6. HAUTATZEKO BATZORDEA ETA IRIZPIDEAK

Proiektuak baloratzeko batzorde misto bat osatuko du Tabakalerak. Batzorde hori maiztasunez bilduko da eta irizpide hauek hartuko dira kontuan:

A modalitateari dagokionean:

- Proiektuaren kalitatea eta sormena.
- Proiektuaren koherentzia eta bat etortzea hautagaiak/ek bere/n aldetik nahiz taldeko gainerako kideekin batera orain arte garatutako ibilbidearekin.
- Bideragarritasuna eta Tabakalerak dituen bitarteko eta lan-espazioetara egokitzea.
- Berrikuntza eta orijinaltasuna, eta Tabakaleraren jarduera eta testuinguruari egiten zaion ekarpena.

**B modalitateari dagokionean:**

- Proiektuaren kalitatea eta sormena.
- Proiektuaren koherentzia eta bat etortzea hautagaiak/ek bere/n aldetik nahiz taldeko gainerako kideekin batera orain arte garatutako ibilbidearekin. Elkarrekin zein banatuta.
- Bideragarritasuna eta Tabakalerak dituen bitarteko eta lan-espazioetara egokitzea.
- Proiektuaren tenporalitatea eta espazio erabiltzeko beharra.

Tabakalerak proiektuak balioesteko, berezko eta kanpoko pertsonalak osatutako komisio mistoa eratuko du, goran aipatutako irizpideak jarraituko dituena.

7. ESPAZIOEN LAGAPEN EPEAK

A modalitateko espazioen lagapenak 2 eta 6 aste arteko iraupena izango du, denbora epe luzeena ezin izango da luzatu. B modalitatekoek 2 aste eta 3 hilabete arteko epea izango dute. Iraupen zehatza eta garapen datak sortzaile edo eragilearekin adostuko ditu Tabakalerako lan-taldeak eta Tabakalerak bere programa dela-eta hartutako konpromisoek baldintzatuko ditu. Azken erabakia Tabakalerarena izango da.

B modalitatearen kasuan, proiektu bakoitzak dauzkan ezaugarri eta berehalako beharrak ere kontuan hartuko dira.

8. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdira aurkezteak honako konpromiso hauek onartzea dakar:

A modalitateari dagokionean:

- Onartutako eskaera bertan behera utziz gero, hautagaiak behar besteko aurrerapenez jakinarazi beharko du.
- Adostutako datetan justifikaziorik gabe lan-espaziora huts egiteak egonaldia eta emandako laguntzak bertan behera uztea ekar lezake.
- Tabakalera izan eta gero, beren egonaldiari buruzko memoria bana aurkeztu beharko dute egoiliarrek.



- Egonaldia bera eta haren inguruan sortutako jarduerak Tabakalerak egonaldi-programaren eta lan-espazioak lagatzeko programaren inguruan garatzen duen programazioan sartu ahal izango dira.
- Egonaldia obra edo argitalpenen bat ekoizteko erabiliz gero, Tabakaleraren izena jarri beharko da kredituetan.
- Tabakalerako espazioak eta ekipamendua erabiltzeko baldintzak onartzea.

B modalitateari dagokionean:

- Onartutako eskaera bertan behera utziz gero, hautagaiak behar besteko aurrerapenez jakinarazi beharko du.
- Adostutako datetan justifikaziorik gabe lan-espaziora huts egiteak egonaldia eta emandako laguntzak bertan behera uztea ekar lezake.
- Egonaldia obra edo argitalpenen bat ekoizteko erabiliz gero, Tabakaleraren izena jarri beharko da kredituetan.
- Tabakalerako espazioak eta ekipamendua erabiltzeko baldintzak onartzea

9. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Deialdi ireki eta iraunkorra da. Izen-ematea, Tabakalerako webgunearen bitartez egin beharko da, online dagoen formularioa osatuz eta ondoko dokumentazioa atxekituz:

A modalitateari dagokionean:

PDF formatuko (gehienez 10 mega) edo paperezko (gehienez 10 orrialde) dokumentu bat, honako datu hauekin:

1. Harremanetan jartzeko datuak: izena, abizenak, helbidea, e-maila, harremanetarako telefono-zenbakia, jaioteguna. Hautatutako proiektuaren ordezkari bakarra izendatuko da solaskide izateko.
2. Proiektuaren deskribapena eta hautagaiak zergatik egin nahi duten proiektuaren fase hori Tabakaleran; halaber, egonaldiaren iraupena ere adierazi beharko da, eta hautagaiak noiz duen egoiliar izateko aukera, betiere deialdiaren arabera (gutxienez 500 hitz, gehienez 1000).
3. Proiektua garatu ahal izateko beharrian espazialak eta teknikoak.
4. Tabakalerako egonaldiaren bitartean premia guztien aurreikuspena ere.
5. Egoiliar den aldirako aurreikusitako lan-egutegia.
6. Proiektua azaltzeko lagungarri den material grafikoa edo bestelakoa.



7. CVa eta bibliografia edo historia laburra (gehienez 500 hitz).

B modalitateari dagokionean:

PDF formatuko (gehienez 10 mega) edo paperezko (gehienez 10 orrialde) dokumentu bat, honako datu hauekin:

1. Harremanetan jartzeko datuak: izena, abizenak, helbidea, e-maila, harremanetarako telefono-zenbakia, jaioteguna. Hautatutako proiektuaren ordezkari bakarra izendatuko da solaskide izateko.
2. Proiektuaren deskribapena eta hautagaiek zergatik egin nahi duten proiektuaren fase hori Tabakaleran; halaber, egonaldiaren iraupena ere adierazi beharko da, eta hautagaiak noiz duen egoiliar izateko aukera, betiere deialdiaren arabera (gutxienez 500 hitz, gehienez 1000).
3. Espazioa eta/edo ekipamendu teknikoak erabiltzeko beharren urjentzia azaltzeko deskribapena.
4. Erabilera puntual horri erantzuteko beharrian espazial zein teknikoen azalpena.
5. CVa eta bibliografia edo historia laburra (gehienez 500 hitz).

Bi modalitateetan hautatutako hautagaiek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte 10 eguneko epean, hautatuak izan direla jakinarazten zaienetik kontatzen hasita:

- NANaren, IFKren edo pasaportearen kopia.
- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategineko 6o. artikuluan deskribatutako egoeraren batean sartuta ez egotearen adierazpena. Dokumentu hau Tabakalerako web-orritik deskargatu daiteke, eta modalitate bakoitzari dagokion deialdian aurkituko da.

Kolektiboen kasuan, adierazpen horrek hautagai guztiei buruzkoa izan beharko du.

10. JABETZA INTELEKTUALA

Parte-hartzaileak izango dira aurkeztzen dituzten proiektuen egile eta originaltasunaren erantzule, eta proiektuen gaineko jabetza intelektualeko eskubide guztiak legez dagozkiela bermatu behar dute; ildo berean, Tabakalerak modu baketsuan erabili ahal izango dituela bermatuko dute, eta berme hori



beteko ez balute, Tabakalerak zuzenean edo zeharka jasan ditzakeen kalte edota galeren erantzukizunetik salbuesten dute esanbidez Tabakalera.

Hautatutako pertsonak Tabakalerari lagako dizkio proiektu osoari edo proiektuko elementuen zati bati nahiz proiektuaren garapenari dagozkion ustiapen- eta irudi-eskubideak, legez baimendutako gehieneko aldirako, mundu osoan, Tabakaleraren jardueren berri emateko argitalpen, katalogo edo liburuxkak paperean edo digitalean argitaratzeko edo jardueraren sustapenerako, baina merkataritza-jarduerak esanbidez alde batera utzita.

Aukeratutakoak Tabakalerari bere izena deialdi honen xedeen barruan komenigarritzat jotzen duen moduan erabiltzeko baimena emango dio, esanbidez.

11. DATUAK BABESTEIA

Deialdi honetan emandako datu pertsonalak Tabakaleraren fitxategi batean sartuko dira, deialdi hau, deialdiaren administrazio-kudeaketako jardunak, fakturazioa eta/edo dokumentazioa kudeatu ahal izateko, eta parte-hartzaileek onartu egin behar dute beren datuak fitxategi horretan sartzea. Horri dagokionez, helbidea honako hau izango da: Tabakalera, Mandasko Dukea 32, Donostia. Parte-hartzaileak bere laguntzailearen baten datu pertsonalak ematen baditu, datuak Tabakalerari xede bererako jakinarazteko haren baimena izan beharko du.

Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezeztatzeko eta datuei aurka egiteko eskubideak posta elektronikoko bidez baliatu behar dira; mezu elektronikoa pgaraikideak@tabakalera.eu bidali, gaia honako hau duela: "sartzeko baimenak"; mezuarekin batera datuen titularrak sinatutako gutun bat ere aurkeztu beharko da, eta jakinarazpenak jasotzeko helbide bat adierazteaz gain, NANaren edo antzeko beste dokumentu baten kopia ere bidali behar da.

12. PARTE-HARTZAILEEN IRUDI-ESKUBIDEAK

Parte-hartzaileek Tabakalerako gunetan hartutako irudietan (argazkiak, bideoak eta abar) ager daitezkeela onartuko dute, gero informazioa emateko edo sustapenerako erabiltzearentz; era berean, erabilera hori baimenduko dute.

Hori guztia ohorerako eskubidearen aurkako erabilera edo aplikazio guztiak alde batera utzita, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta

TABAKALERA



Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan aurreikusitako moduan. Eremu horretakoa ez den beste edozein erabilera baimen honetatik kanpo geratzen da.

13. OINARRIAK ONARTZEA

Deialdian parte hartzeak deialdiaren oinarri hauek onartzea dakar.

Info +:

pgaraikideak@tabakalera.eu

943011311

www.tabakalera.eu